



Azoka Berezia, kirolak eta musika Tolosan San Joan jaien atarian

AZOKAK ▶ Sanjoanetakoak eta Ekologikoak bat egingo dute; hainbat sari banatuko dituzte

NEURRIAK ▶ Trafiko aldaketak egingo dituzte, ekitaldi ugari kalean antolatu dituztelako ▶ 2

TOLOSA ▶

Bihar, Udaberri taldeko belaunaldien erromeria

Plaza Zaharrean
hasiko dira 100
dantzari inguru ▶ 3



Oinkari dantza taldearen eskutik 'Aspaldikotik' lana ikusgai bihar Olaederran

VILLABONA ▶ Bere azken emanaldia estreinatuko du bihar Oinkari dantza taldeak, sorterrian, Villabonan. Olaederra kiroldegia izango da *Aspaldikotik* lanaren aurkezpenaren lekukoa, 22:30etik aurrera. Taldeko 50 helduk eta 13 haurrek hartuko dute parte, Edu Muruamendiaren zuzendaritzapean. I. GARCIA ▶ 4

LEITZA ▶

Igerilekua irekiko dute astelehenetik aurrera, irailera arte

Lehen bost egunetan goizez izanen da; larunbatetik egun osoz ▶ 7

BIDAIA ALTERNATIBOAK


Bidaiatzeko beste modu bat

Hegalkiarekin

...tik aurrera

Hegaldirik gabe

VENEZUELA 20 egun 2030€
Peru 17 egun 1805€
Bulgaria oinez 15 egun..... 1210
Vietnam 20 egun 2190€
India 16 egun 1200€
Yemen 18 egun 1580€
Uzbekistan 17 egun 1790€



Naminia-Bostwana-Zimbabwe 14 egun 700€
Hegoafrika - Lesotho 20 egun 1000€
Bolivia 18 egun 997€
Estatu Batuak 16 egun 1218€
Canada 15 egun..... 1189€
Nepal 13 egun..... 558€
Myanmar 14 egun..... 760€



Egitarau gehiago aukeran
KONTSULTATU

Web orriko bazkidearen tokoa izena
eman eta bidaiaren baten zozketan
sartuko zara.

Egitarau gehiago aukeran
KONTSULTATU

Segundo Izpizua 28
Donostia. 943 29 70 25

info@kultourbidaiak.com
www.kultourbidaiak.com

SANJOANAK ▶

Kirola, dantza eta Azoka Berezia izango dira bihar, motorrak berotzen hasteko

Sanjoanetarako sei egun falta badira ere, izango da zer eginik eta zer ikusirik bihar hiriko kaleetan, festetarako antolatutako egitarauaren barruan



Sega txapelketa, saskibalo partidak eta Azoka Berezia izango dira besteak beste, bihar. HITZA

ESTI EZEIZA

Sanjoanak hasteko hilabete geratzen denean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte motorrak berotzen hasteko. Izan ere, bihar, jaiak ez badira ere, festa giroa nagusituko da egun guztian zehar, Tolosako kaleetan.

Urtero bezala, San Joan aurreko asteburua iritsi da, eta 3x3 saskibalo txapelketa garai honetan jokatzeko da. Aurtengo berezitasuna senior txapelketarik ez dela izango da. Gazteen aldeko apustua egin nahi

EGITARAUA ▶

BIHAR, EKAINAK 16

09:00. Goiz guztian sanjoanetako aparteko azoka.

10:00. Beotibar pilotalekuan Tolosaldeko San Joan Pilota Txapelketako finalak.

10:30. Udaberri dantzari taldeko Belaunaldien emanaldia; bilkura Triangulo plazan eta ondoren kalejira dantzatua Alde Zaharrean barrena, plazetan dantza eginez.

17:00. Graffiti-skate

erakusketa Triangulo plazan.

18:00. Euskal Herriko III. Segatxapelketa lurreamendiko zelaietan.

18:00. Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleen emanaldia Leidor antzokian.

19:00. Berdura plazan, Sagardo txapelketa, San Joan Saria. Sagardo dastatzea. Antolatzailea, Batasuna elkarte.

dutela adierazi dute antolatzaileek. Horregatik, hiru mailatan lehiatuko dira parte-hartzaileak: alebinetan, infantiletan eta kadeteetan.

Txapelketako arauak 3x3tan ohikoak direnak izango dira. Partidak Foruen etorbidean jokatu dituzte 09:00etatik aurrera, baina euria egingo balu, Usabal kiroldegian.

Basket 3x3arekin batera Triangulo plazan urtero egiten da graffiti-skate erakusketa egongo da 17:00etatik aurrera. Ekintza hau ere sanjoanetako programazioaren barnean sartzen da. Skate-a praktikatu nahi duenak materiala izango du eskura bertan.

Kirol jarduerekin amaitzeko, II. Eskubaloiko San Joan torneo ere jokatu da bihar. Partidak goizeko hamarretan hasiko dira eta Usabal kiroldegian jokatu dituzte.

Bestalde, Udalak antolatutako dantza tailerreko ikasleek emanaldia eskainiko dute bihar arratsaldean, Leidorren.

Azoka Berezia

Bihar, beste behin ere, Tolosa merkataritza gunere irekian bihurtuko da. Aurtengoan bi azoka batean egingo dira: Sanjoanetako XVIIIa eta Ekologikoa, XIIa.

09:00etan hasi eta 14:00ak arte, Euskal herritik eta Errioxatik etorritako saltzaileak aurkituko dira San Frantzisko ibilbidean. Produktu aukera handia izango da: fruta, arrautzak, esnea, gazta, ardo, ezti, pintzo eologikoak, ogia, kon-

tsebak... Hauetako batzuk ekologikoak izango dira.

Aipaturiko produktuez gain, postu batean nekazaritza ekologikoari buruzko informazioa egongo da. Bertan, liburu, aldizkari eta informazio orriak aurkituko dira.

Azken urteotan bezala, aurreko ere, Tolomendi Mendi Nekazaritza Elkartearen laguntzarekin, Zerkausiko saltzaile-egiteak sarituko dira urte guztian egin duten lanarengatik. Lau arlotan banatuko dira lehenengo eta bigarren sariak: barazki onena, fruta onena, kalitate handieneko postua eta barietate handieneko postua. Sari banaketa, 12:00etan izango da, Zerkausian.

Azoka berezia dagoela aprobetxatuz, minbiziaren aurkako kanpainaren baitan, diru bilketa egingo dute bihar Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako sailak deituta.

Trafiko aldaketak

Trafikoan ere eragina izango dute festek, hala, bihar, 07:00etatik aurrera, Foruen etorbideko bi aldeek ibilgailurik gabe egon beharko dute, saskibaloian jokatzeko pistak jartzen hasiko baitira. 14:00ak arte itxita egongo da, eta San Frantziskotik barrena bideratuko dute trafikoa. Arratsaldean, 14:00etatik aurrera, saskibaloiko pistak San Frantzisko kaleko lehen zatian jarriko dituzte, beraz ezin du autorik egon zati horretan. Ibilgailuentzat itxita egongo da 21:00ak arte, eta trafikoa Zumalakarregi kaletik barrena bideratuko dute. Igandean berriz, txirridulari proba izango da, 18:00etan hasi eta 21:00ak arte. Hori dela eta, zirkulaziorako itxita egongo da San Frantzisko kalea Gernikako Arbolako bidegurutzetik hasita. Era berean, itxita egongo dira Foruen etorbidea, Nafarroa etorbidea eta Oria kalea. Ibilgailuak Laskurain kaletik eta Gernikako Arbolatik desbideratuko dituzte norabide guztietara.

hitza


Harpidedunen txokoa

Larunbatean, ekainak 16, **22:30**ean

Villabonako Olaederra kiroldegian **OINKARI** dantza taldeak

"ASPALDIKOTIK" ikuskizuna aurkeztuko du.

Hitzako harpidedunen artean **bi harpidedunentzat bina sarrera** zozketatuko ditugu eta hauek dira irabazleak: ▶ Elena Zubillaga (Alegia) ▶ Aitziber Olaizola (Baliarrain)



KULTURA ▶

Udaberri taldeko belaunaldi guztien erromeria, bihar

100 dantzari baino gehiago ariko dira; Plaza Zaharrea hasiko dira 11:00etan eta Triangulon amaitu 13:00etan

IÑIGO TERRADILLOS

Aurten Udaberri Dantzari taldeak 50 urte betetzen ditu, urrezko ezteiak, eta hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatuta dituzte dagoeneko: argazki erakusketa, dantza taldeen emanaldia... Oraingoan, saio berezi batekin datoz, hain zuzen ere, bihar, San Joan eguna baino astebete lehenago, belaunaldien erromeria egingo dute Alde Zaharreko kaleetan zehar.

Bertan, taldetik pasatako dantzari gehienek hartuko dute parte, lehenengo belaunalditik hasita, oraingora, bosgarrena, 100 dantzaritik gora ariko dira. 11:00etan hasiko dira dantzan Plaza Zaharrean, eta Trianguloan amaituko dute 13:30ean. Udaberri azaldu duenez, «aipatzekoa da aurreko belaunaldiek egin duten lana beraien emanaldi txiki hauek aurrera emateko, astero astero entseguak eginez kiroldegian beraien egunean ahal den hobekien egiteko».

Honela banatuko dituzte belaunaldi bakoitzaren emanaldiak: lehenengo belaunaldiak *Bedaioko ingurutxo* dantzatu du Solana kalean; bigarren belaunaldiak *Larrain-Dantza* Berdura plaza parean; hirugarren belaunaldiak *Iturengo Soka-dantza*, *Iribasko ingurutxo*, *Imotzeko esku dantza* Plaza Berrian; laugarren belaunaldiak *Lapurdiko ihauteria* eskainiko du Tonto-kalean; eta bosgarren belaunaldiak *Fandangoa eta arinarin berria* Plaza Zaharrean. Ibilbideari dagokionez, Plaza Zaharretik, Solana kalera abiatuko dira eta Korreo kaletik Plaza Berrira jaitsi. Ondoren, Arostegieta kaletik Tonto kalera, eta Plaza Zaharrea, Letxuga kaletik; handik, Triangulora joango dira.

Ondoren, dantzari guztiak eta bertara hurbildu nahi duten guztiak bazkaria egingo dute Jesuitinen ikastetxean (Txartelak 5 eurotan eskura daitezke Kimetx, Zumbeltz eta Garikanon). Arratsaldea, taldeko musikariek girotuko dute eta barra bat ere jarriko dute.



Udaberri taldekoak garai ezberdinetan. HITZA

BELAUNALDIEN ERROMERIA ▶

EGITARAUA

11:00. Plaza Zaharrean hasiko dira dantzatzeko.

▶ Ibilbidea: Plaza Zaharretik Solana kalera joango dira; gero, Korreo kaletik Plaza Berrira jeitsiko dira; ondoren, Arostegieta kaletik Tonto kalera egingo dute; buelta eman eta Plaza Zaharrentzat abiatuko

dira berriro, Letxuga kaletik; handik, Triangulora, azken saioak eskaintzera. Tartean, lekua eta denboraren arabera, dantzaldi gehiago egingo dituzte.

13:00. Triangulo plazan egingo dute azken emanaldia. **Ondoren.** Jesuitinetan bazkaria eta musika.

POLITIKA ▶

Aparteko osoko bilkura bihar, 12:30ean

Udalak aparteko osoko bilkura egingo du bihar, udaltxeuan, 12:30ean. Hauek izango dira eztabaidatuko dituzten gaiak: Adineko mahaia osatzea; hautetsien kredentzialak eta nortasuna egiaztatzea; zinegotzien kargu hartzea; udalbatzaren erate-deklarazioa; alkatea hautatzea eta alkatearen kargua hartzea. Herritarrak gonbidatuta daude bilkurara.

POLITIKA ▶

Sinadura bilketa bihar, Ismael Fakhri-ren alde

Bihar goizean mahaia jarriko dituzte Triangulo plazan eta Tonto kalen, Ismael Fakhri tolosarrari egotzi dioten 4 urteko kartzela zigorraren aurka sinadurak biltzeko. Mozioa aurrera atera dadin ahalik eta sinadura gehien behar dituztela azaldu du Segik. Hodei Galarraga ETAKideari Zaldibian egindako omenaldian parte hartzeagatik epaitu zuten iaz Fakhri.

GIZARTEA ▶

Iurreamendiren Adinekoen Astea

Iurreamendi egoitzan Adinekoen Astea ari dira ospatzen aste honetan. Hala, gaur meza izango da 10:30ean; 11:00etan txapelketak egingo dituzte kafetegian; 13:00etan bazkaria egingo dute zuzendaritza batzordeko kideekin eta 16:00etan bingo berezia izango da kafetegian.

KIROLAK ▶

Lander Gil kadeteetan Espainiakoan txapelkun

Pasa den astean izan zen autonomien arteko txapelketa Lloret de Mar-en



Lander Gil 100 metro hesietako proban, Lloret de Mar-en. HITZA

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan Lloret de Mar-en (Herralde Katalanak) autonomien arteko kadete mailako Espainiako Txapelketa jokatu zuten. Bertan Tolosa CFko 8 atleta lehiatu ziren, eta nabarmendu zena Lander Gil izan zen, 100 metro hesietako proban txapelkun izan baitzen, eta gainera, Espainiako errekorra hautsi baitzuen. Hain zuzen ere, 13,41eko denbora egin zuen hernaldearrrak, eta marka horrek datoren astean Bordelen izango den Munduko Txapelketarako konfiantza hartzeko balioa dio ziurrenik.

Domina lortu zuen Tolosa CFko beste atleta bat Igor Legarda izan zen. Altuera jautzian, 1,79koarekin brontzezkoa eskuratu zuen. Iker Epelde tolosarrak, berriz, 300 metroko lasterketan 4. postua lortu zuen. Mikel Ayerbe eta Oihana Pelaez, bestalde, pisu jaurtiketan lehiatu ziren eta 8. eta 10. postua lortu zuten hurrenez hurren. Iker Candok 100 metro lauetan parte hartu zuen eta A finalerako ehuneko batzutura geratu ondoren, B finala irabazi zuen arazorik gabe. Azkenik, Josu Gomez 5 kilometroko martxan eta Martin de La Fuente 300 metro hesietan 13. geratu ziren.

VILLABONA ▶ KULTURA

Iraganetik etorritako sorgina

‘Aspaldikotik’ obra estreinatuko du Oinkari dantza taldeak bihar Olaederran

IMANOL GARCIA

Villabonako Oinkari dantza taldeak bihar estreinatuko du bere azken emanaldia. Olaederra kiroldegian egingo dute, 22:30etik aurrera eta 5 euro balio ditu sarrerak. Berezitasun bat izango du emanaldi honek. Beste saioretan ez bezala, lehenengo aldiz istorio bat kontatzen da, ikuskizuna nolabait harilkatzen duena.

Eneko Arteaga Oinkariko arduradunak azaltzen duenez, hasiera batean beraiek hasi ziren istorio bat asmatu nahian. «Konturatu ginen gurea dantza egitea zela eta Juan Kruz Igerabiderengana jo genuen. Hasieratik konektatu genuen berarekin», dio Arteagak. Igerabiderentzat horrelako lan bat egiten duen lehenengo aldia da. «Musika bati edo margolan bati jarri diot testua, baina dantza emanaldi bati ez orain arte», azaltzen du idazle adunarrak. «Dantza zehaztuta zeuden eta jarrita dagoen egitura bati testua sartzea beti da zaila. Nire aldetik saiatu naiz istorioarekin ikusmina eragiten».

Aspaldikotik ikuskizunean, sorgin baten istorioa kontatzen da. Mendeetan lotan egon ondoren, esnatu egiten da. Itxura aldatzeko ahalmena du eta berak dituen oroitzapenak islatzen dira dantzen bitartez. Igerabidek dioenez, «dantzak azalduko zuen testu informatibo bat egitea baino, testu narratiboa bat

egitea egokiago ikusten genuen, ikusle goak emanaldia gusturago jarraitzeko».

Dantza motari dagokionez, aurreko Oroitz obrarekin alderatu estilo tradizionala dute. Emanaldia harilkatuko duen istorio bat txertatzea «erronka handia» izan dela dio Arteagak. «Esperientzia interesgarria» izan dela gaineratu du Igerabidek.

Emanaldian argi diseinuak eta musikak garrantzi handia

izango dute. Arteagak azaltzen duenez, argiztapena «osagarri nagusienetakoa» da. Musikari dagokionez, zortzi lagun ariko dira zuzeneko musika egiten Xanet Arozenaren gidaritzapean.

Mariaje Arratibel (zeharkako flauta eta txistua) ere ariko dira. Taldea osatzen du Iñaki Telletxea perkusio-joleak.

Musikaren indarra

Zalakainek azaltzen duenez, «indar gehiago du musika zuzenean entzuteak». Instrumentu ugari izatean, «gorputz gehiago» duela dio Zalakainek eta horrek «beste kolore» bat ematen dioela emanaldiari. Musikariek dantzarien arabera jo behar dute. Piezak orokorrean tradizionalak dira, baina dantzetan aldaketak egin direnez, musikariek dantzari jarraitu behar diete eta horrek beraien egitekoa zaildu egiten du.

Biharko emanaldiaz gain, Oinkarik datorren astean Tolosaldean egingo du *Aspaldikotik* eta Lezon ere hitzartuta dute emanaldia. Herriko zenbait enpresen emandako diru laguntza eskertzen du Arteagak, eta «Udalak emandako laguntza handia» nabarmentzen du ere, «bai emanaldi honetarako bai urtean zehar dantza taldea mantentzeko ere».



ANOETA-VILLABONA ▶

Elkarretaratzeak egingo ditu bihar ezker abertzaleak

Ezker abertzaleak *Euskal Herriarren borondatea errespeta! Putxerazorik ez!* lelopean elkarretaratzeak egingo ditu bihar Villabonan eta Anoetan. 10:30ean Villabonan egingo dute plazan eta Anoetan 12:45ean udaletxe aurrean. Bestetik, bihar Udalen osaketa egingo den osoko bilkuretara joateko deialdia egiten dute. Villabonan 11:00etan izango da eta Anoetan 13:00etan.

IRURA ▶

Udalak herritarrei deialdia egin die bihar elkartzeko

Irurako Udalak herritarrei dei egin die bihar 12:00etan udaletxe aurrean elkartzeko. Jakina denez, ez PSE-EEK ezta PPK ez zuten lortu botuen %5a, boto txuri aurreko legealdiko Udalak jarraituko du funtziotan. Biher Udalak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei eta lunch bat izango dela azaldu dute.

TOLOSA ▶

Udaleku Musikalak uztailean

Udaleku Musikalak antolatutako Tolosaldeko Musika Eskolan, Uztailean 2tik 13ra egingo dituzte. Udaleku hauen helburuak musika klasikoaren bidez ikaslearen sentsibiltate artistikoa garatzea eta haurrek beraien musikarengana jakinmina garatu dezaten oporretan taller bat eginez dira. 4 eta 11 ute bitartekoentzat dira tailerrak eta 110 euroko kostua du. Udalekuean izena emateko azken eguna gaur da.

FITXA TEKNIKOA ▶

Obra. *Aspaldikotik* dantza emanaldia.

Tokia. Villabonako Olaederra kiroldegia.

Data. Biher, 22:30ean.

Dantzariak. Oinkari dantza taldeko 50 heldu eta 13 haur.

Dantza zuzendaria. Edu Muruamendiarez.

Musika zuzendaria. Xanet Arozena.

Testu egilea. Juan Kruz Igerabide.

Narrazioa. Iñaki Beraetxe.

Argien diseinua. Karlos Solano.

Argi teknikaria. Iker Ugalde.



Oinkari dantza taldekoak *Aspaldikotik* lanaren entsegu batean. I. GARCIA

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industringunea, 18 • BELAUNTZA



IBARRAKO
UDALA

Ibarrako gazte festetan
alaitasuna eta
errespetua nagusi!



Tel.: 943 67 11 38 • ibarra@udal.gipuzkoa.net

ALBIZTUR ▶ ERAKUSKETA

Herritarren argazkiak ostatuan

Gai ezberdinetako argazki zaharrak daude ikusgai, eta aldatuz joango dira

NEREA URBIZU

Albizturko ostatuan herriko argazki zaharrak daude ikusgai urte osoan zehar. Bertako langileek esan bezala, «duela urte eta erdi-edo hasi ginen honekin; orain jendea guri argazkiak uzten gehiago animatzen hasi da». Asto karrerak, txirindulariak, eskolako argazkiak, nekazariak, emakumeak jostunak, zaku karrerak... Denetik pixka bat ikus daiteke ostatuan.

Argazkiak bertan jartzearen ideia burura etorri zitzairen, ostatuari berari ondo geratuko zitzaiolekoan, apaingarri gisa: «Hasieran horma-eta huts xamar ikusten genuen, eta argazki zahar batzuk ondo gera zitezkeela pentsatu genuen». Horregatik, Albizturko plazako obrekin hasi zirenean erabilitako argazki erakusketako ar-

gazkiak Udolari eskatzen hasi ziren, eta gutxinaka-gutxinaka gero eta gehiago ari dira biltzen. «Guri ekartzen dizkigute, eta guk kopia nahi dugun taimainan egiten dugu: gero plastiko batekin babesteko denda bati eskatzen diogu, eta ikusgai jartzen ditugu».

Jabeek argazkien egilea zein den ez dakite, askotan ezta argazki zaharren jabeek ere, baina ostatuan esan dutenez, ziur-ziur German Intxausti alegiararenak izango ziren batzuk, hala aritzen baitzen txistularia, argazkiak nonahi ateratzen.

100 urteko argazkiak

Ikusgai orain 6 bat daude, baina 50etik gora dituzte gordeta, noizean behin aldatzen joateko. Tartean, 1897. urteko argazki batzuk daude, eskolakoren



Asto karrera. Aspalduko kontua da astoen karrera eskualdean. Irudian, 1965. urtean festetan egindako saioan. Argazki hau garai hartako ispilu egokia da: apaiza erdialdean garaiko janzkerarekin, autoak, mutilak astoen gainean eta ez neskek, eta abar. HITZA

bat: «Jendeak ez du argazkiko inor ezagutzen eta horregatik ez dugu ezta jarri ere egin».

«Jendearentzat bereziak, bixiak dira argazkiak, noizean behin etortzen da ikustera». Garai haiek gogoratzeko bide egokia izaten da argazki zaharrena. Izan ere, 1950. hamarkadatik gorakoak dira gehienak, eta ikusle gehienak, noski, bizirik daude. 80. hamarkadakoak ere badaude, baina arerrago jarriko dituzte.

Herritarren argazkiei esker

Herritarrek beraiek aberastu dezaketen erakusketa da Albizturko ostatuan dagoena. Jendeak duela 10 bat urte plaza berritzeko lanak hasi zituztenean egindako argazki bilduma bat osatu eta bertan jarri zituzten ikusgai, festetan. Bilduma hori bi urtez erabili ondoren udaletxean gorde zuten argazki bakoitzaren kopia bat, eta horiek berriz ikusteko aukera dago, noski, herritarrek oraindik ere uzten ari direnekin batera.

Erakusketa, beraz, ostatuan, printzipioz, «argazki guztiak erakutsi arte» izango dira ikusgai.



Nekazariak. Albiztur beheran, eta bi nekazari idien laguntzaz belarra garraiatzen, goiko errepidetik. HITZA



100 urteko argazkiak. 1897. urteko argazki batzuk ere badaude: irudia galtzen ari diren argazkiak dira, baina argi asko ikus daiteke idatzita, Albiztur zela, eta eskolako argazki bat zela. Albizturterrek ere ez dakite zein den zein, oso zaharra baita. HITZA



ELEKTRIZITATEA

Euskal - Herria, 27
IBARRA
Tel. 943 67 32 80

tolosako

SANJOANETAKO AZOKA BEREZIA

• BIZKAIKO BATEAN
AZOKA EKOLOGIKOA, etc.
SANJOANETAKO AZOKA
(produktu ekologikoen, kalitateko produktuen...)

• ZERKAUSIKO SALTZAILAEN ARTEAN
SARI BANAKETA
Zerkausian barazki onena, fruta onena, pasta poltiena, barietate handieneko pasta...



LEABURU-TXARAMA ▶ POLITIKA

Ezker abertzaleak «alkatetza lapurtu nahi dutela» salatu du

Bihar 11:00etan Leaburuko plazan elkarretaratzea egingo dute «bizi dugun egoera antidemokratiko hau salatzen»



Lapurketa ez irakur daiteke Leaburuko udaletxeko balkoian. A. IMAZ

ASIER IMAZ

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak EAE-ANV eta Bide Berriak plataformaren arteko bileren berri eman du. Batzarrak bihar osatuko den Udalaren inguruan hitz egiteko egin direla jakinarazi dute. Guztira 3 bilera deialdi egin dituztela azaldu dute.

«Lehen bilera hilaren 5ean egin genuen. Hauteskundeetako irabazle bezala, EAEk deitu zien Bide Berriakoei. Bertan beraiek 3 zinegotzi hartuko zituztela esan ziguten, eta beste guztia EAE-ANVren arazoa zela. Horretaz gain, gurekin ezin zela hitz egin eta hurrengo bilera bitartekariekin egingo genuela esan ziguten». Leaburu-Txaramako Udala 7 zinegotzik osatzen dute, hauteskun-

deen emaitzen arabera, legez kanpo utzitako EAEn bozkak kontuan hartuta, zerranda honen 4 zinegotzi lortu zituen, Bide Berriaren zerranda, berriaz, 3.

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak, euren bitartekaria lortu eta bigarren bilerarako deitu zuten Bide Berriakoei zerrendaburua, Joxe Martin Deusto. «Hilaren 8an deitu genuen eta bitartekariarik lortu ez zuelako oraindik, jarritako egunean elkartzea ez zela posible izango esan zigun. Hilaren 12an fax baten bidez hurrengo egunean bilera egingo genuela esan zigun Joxe Martin Deustok, eta euren aldetik ez dela bitartekariarik joango esan zuten. Hor ikusten da nola farre egin duen gutaz eta herritarretaz. Bileran bertan errespetu

faltaz eta mespretsuz zuzendu zitzaion gure bitartekariari, berarentzako balio ez zuela esanez, abokatua ez zelako, 10 botugatik bakarrik irabazi dugula eta antzeko gauzak esanez. Euren 3 zinegotzi hartuko zituztela ere errepikatu zuten, EAE Udalean egoteko ezer egingo ez dutela gaineratuz».

Ezker abertzaleak «jarrera hau salatu nahi dugu. Joxe Martin Deustoren helburua alkatetza lortzea besterik ez da, eta beste guztiak bost axola dio berarentzat. Herriaren hobe-kuntzarekin ez du zerikusirik, interes pertsonalak besterik ez ditu bilatzen. Egoera ez demokratiko hau salatzen dugu, Bide Berriakoei herriarren hitza errespetatu dezatela eskatzen diegu, alkatetza lapurtu nahi baitu Deustok».

LIZARTZA ▶

Balkoietan ikurrina jartzeko eskatu du EAEK

Lizartzako EAE-ANVk esker eman nahi dizkie herritar guztiei, «hauteskunde antidemokratiko hauetan eman duzuen erantzunarengatik. EAE-ANVren ilegalizazioarekin berriro ere putxerazoa eman daiteke udalean». Honen aurrean, herritar guztiak balkoietan ikurrina ipintzea eskatzen die EAEK. Gaur 20:00etan elkarretaratzea egingo dute udaletxearen aurrean eta bihar 11:30ean plazan bilduko dira, eta gero manifestazioa egingo dute.

IBARRA ▶

Festa batzordea hilaren 18an, 19:30ean

Ibarrako Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak, San Bartolome jaien antolaketa-rekin jarraitzeko asmoz, datorren astelehean, hilaren 18an, 19:30ean Udal Pleno Aretoan egingo den Festa Batzordearen bilkuran parte hartzeko gonbidatu nahi ditu herritar guztiak. Bertan aztertu behar diren gaien garrantzia dela eta, deialdi berezia egiten zaie jaietan jarduera edota ekitaldiren bat antolatzen duten elkarte eta taldeei.

LEABURU ▶

Anjel Arrospe Txapeldunen Ligan

2007ko Urrezko Aizkolaria Txapeldunen Liga asteburu honetan jartzen da martxan. Bertan, Floren Nazabalek irabazi berri duen Urrezko Aizkorako sei hoberenak lehiatuko dira. Anjel Arrospe beraz, bertan egongo da. Jardunaldi bakoitzean, 3 aizkolarik parte hartuko dute, 27 egur eta mozteko 5 modu ezberdinetan ariko dira. Lehen jardunaldian, Arrospe Nazabal eta Lopez izango dituz arerio, Arganzon etzi jokatuko den saioan.



Sei onenen artean Arrospe. m.s.

TOLOSA ▶

EAEk deituta elkarretaratzea bihar, 12:00etan

Bihar Tolosako EAE-ANV deituta, elkarretaratzea egingo dute 12:00etan Plaza Zaharrean. *Herritarren borondatea errespetatu* lelopean, Tolosako Eusko Abertzale Ekintzatik «Udal demokratiko baten osaketa» eskatuko dute eta tolosar guztiak bertara agertzeko eskatuaz, deialdi zabala luzatu nahi dute.

IBARRA ▶

Gimnastika erritmikoko infantilak

Hilaren 3an jokatu zuten Getxon Euskadiko Txapelketa infantil mailan eta Belabieta eskolatik bi gimnasta sailkatu ziren: Miren Ezeiza eta Izaro Esnaola; lehenengoak 6. postua lortu zuten eta bigarrenak 9.a. Bestalde, gaur kurso amaierako jaialdia egingo dute Belabieta kiroldegian 17:30ean. Gonbidapen irekia egin dute.

hilberria ▶

Jose Balerdi Tolosa

Jauna
-Golan bego-

OSABA, hain maite izan zaitugun zure ilobak beti gogoan izango degu zure gogotasun, borondatea eta maitasuna gureganako. Agur eta muxu haundi bat. Zure ilobak beti gogoan izango zaitugu.

Zure ilobak: Juan Carlos eta Loli, Iñaki eta Lourdes, Maite eta Juan, M^o Jose eta Julian, Joxe Mari eta M^o Angeles, Maite eta Javi, Loli eta Miguel Mari, M^o Jose eta Juanito, Maite, Josune eta Pello, Goreti, Pepi, Martin, M^o Jose, Joxe Manuel, Joxe Joakin eta Ana, Miguel Angel eta Maitia, Javi eta Ana Mari, Iñaki eta Ibaso.

Haren arimaren alde otzituz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela GAUR, OSTIRALA, ARRATSALDEKO zazpitan, Ugarteke ERROSARIOKO ANDRE MARI parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

UGARTE-AMEZKETAN, 2007ko ekainaren 15ean



HILBERRIK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Astelehenetik aurrera igerilekua zabalik egonen da irailera arte

Lehenengo bost egunetan soilik arratsaldez irekiko dute, baina larunbatetik aurrera ohiko ordutegia izanen du



Maria Zabaleta Leitzako kiroldegiko arduraduna da. N. GARZIA

NAIARA GARZIA

Datorren astelehenean irekiko dituzte herriko igerilekuak. Lehenengo 5 egunak soilik arratsaldez irekiko dira (15:00etatik 20:00etara), eta larunbatetik aurrera ohiko ordutegia izanen dute uda amaitsu arte: 11:00etatik 20:00etara.

Igerilekua ireki ahal izateko hilabete eta erdi daramate prestaketa lanetan. «Urtero sabaiak zuritu egin behar dira, terraza gaizki dago eta ura sartu egiten baita. Honetaz gain horma bat egin dugu. Lehenengo urtean bi aldiz etorri zen ura, jasa handiak izan baitziren, eta igerilekuak bi aldiz gainezka egin zuen. Hor tarte bat zegoen, zakarrentzi moduan erabiltzen zena. Hori kendu egin

dugu eta toki gehiago eman diogu igerilekuari», azaldu du Margarita Zabaleta kiroldegiko arduradunak. Araztegiko atekak ere margotu dituzte, eta aldagelatan ate berriak jarri dituzte.

Prestaketa lan hauetaz gain, udan zehar mantentze-lanak egin behar dira. «Egunero kloroaren laginak hartzen dira hiru aldiz, ea hau ongi dagoen ikusteko».

Eguneroko sarrera solteez gain, uda osorako bonuak ere badaude, baita 10 egunetakoak ere. Kiroldegiko bazkide izateak ere abantailaren bat ematen du bonuak egiteko orduan, merkeago ateratzen baita. «Orokorrean bonuak gehiago saltzen dira. Sarrera solteez asteburuetan saltzen dira

gehienbat, astean zehar lanean ari diren gizonek erosten dituzte, edo Areso eta Berastegitik egun horretarako etortzen direnak». Sarrerak beti bezala igerilekuan bertan salduko dituzte, bonuak, aldiz, kiroldegian.

Honetaz gain, hamakak ere alokatu ahal izango dira. «Etxetik horrelakoak ekartzen uzten dugu, baina nahi izanez gero, 1,50 euro ordaindu eta egun osorako alokatu daiteke».

Urtero bezala denda-taberna ireki egingo dute. «Ni hasiz geroztik plater konbinatuak ere ematen ditugu. Baina igerilekuko sukaldea oso simplea da, eta zerbait nahi izanez gero, batez ere talde bat denean, aldez aurretik esatea eskertuko genuke».

LEITZA ▶ PILOTA

Bihar erabakiko da Herri Arteko finalaurrekoa

Irurtzun eta Leitzaren artean dago lehia nagusia, puntuetan parekatuta baitaude

ERREDAKZIOA

Herri Arteko Txapelketako lehenengo faseko azken partidak asteburu honetan jokatu dira. Aurrerako pilotariak Irurtzuno taldearekin puntutan parekatuta daude, aurreko asteburuan Burlataren aurka lau norgehiagokak galdu ondoren, eta Leitzan bihar jokatu diren saioetan erabakiko da zein talde pasako den finalerdietara.

Goizeko 10:00etan hasiko dira norgehiagokak Amazabal pilotalekuan. Aritz Sagastibeltza eta Aitor Goikoetxea izango dira lehenengoak, Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Anartz Olano bigarrenak, Joxerra Aldaregia eta Jon Jaunarena hirugarrenak eta Mikel Iriarte eta Aimar Lansalot azkenekoak.

Bestalde, aurreko asteburuan Urretxu eta Etxauriko pilotarien aurka jokatuak partidak irabazi ondoren, iagde-

nan Urretxuko finalerdia jokatuko dute, baita Etxauriko Txapelketako finala ere.

Urretxun Jon Jaunarena Boina pilotariaren aurka ariko da eta Aritz Sagastibeltza, Ezkurdiaren aurka. Etxauriko Txapelketari dagokionez, Mikel Iriarte eta Aimar Lansalot izanen dira finala jokatu dutenak igandean, Etxaurin bertan, 17:00etan.

Gainera, Añorga eta Elgetako Txapelketako finalerdiak jokatu dituzte. Elgetakoa gaur bertan izanen da, eta Jaunarena Jauregiren aurka lehiatuko da. Añorgakoa, berriz, 10:30ean izanen da, eta Mikel Iriartek jokatu du.

Plazako Txapelketa

Bestalde, bihar bukatuko dute XV. Plazako Txapelketa. Aurtengoan txapelketak 5 asteburutan iraupena izan du, eta guztira 18 bikotek parte hartu dute.

LEITZA

EAEren batzarra gaur 20:00etan, Aurreran

Gaur 20:00etan herri batzarra egingo dute Aurreran. Leitzako ezker abertzaleak deituriko bilera honetan hiru izango dira jorratuko dituzten gaiak. Prozesuaren deskargua, hauteskunde balarazioa eta larunbatean egingo den Udalaren eraketa. Azken puntu honi dagokionez, hauteskundeak eta gero 6 zinegotzi eskuratu zituen EAE-ANVK, gehiengo osoa lortuz.

ARESO ▶

Areso bihar Martiartun ariko da, 640ekoan

Euskadiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketaren barruan, 640 kiloko kategorian, bigarren jardunaldia jokatu dute igandean Martiartun (Bizkaia). Areso taldea bertan izanen da, Goiherri, Gaztedi A, Gaztedi B eta Mutrikeren batera. Pisaketa 9:00etatik 10:30era egingo dute eta 12:00etan txapelketa hasiko da. Lehenengo jardunaldia eta gero Areso hirugarren doa maila honetan.

IGERILEKUA ▶ JAKIN BEHARREKO ZENBAIT DATU

UDAKO DENBORALDIA

Hasiera. Ekainak 18, astelehena.

▶ Ekainaren 23ra arte soilik arratsaldez irekiko dute.

Bukaera. Irailaren 9a, igandea.

▶ Eguna erabat zehaztu gabe dago, baina irailaren hasieran itxiko dute.

ORDUTEGIA

Ekainaren 23ra arte.

Arratsaldez, 15:00etatik 20:00etara.

Ekainaren 23tik aurrera. 11:00etatik 20:00etara.

PREZIOAK

UDAKO BONUAK

Haurrak. 21,40/17,15 euro.

▶ Kiroldegiko sozioak/sozioak ez direnak.

Gazteak. 32,10/26,75 euro.

Helduak. 57,90/50,40 euro.

Jubilatuak. 21,40/17,15 euro.

Familiarra. 117,80/106,85 euro.

10 EGUNETARAKO BONUA
Prezio bakarra. 32,15 /26,75 euro.

EGUNEROKO SARRERAK

Haurrak. 2,05/1,85 euro.

Gazteak. 3,45/3,25 euro.

Helduak. 4,05/3,75 euro.

65 urtetik gorakoak.

22,05/1,85 euro.

GOIERRITARRA aldzikiariak KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN

ERREFERENTZIA:07-KOG

Eskaizten da:

- Etorrizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Finko gehi komisioz osatutako soldata interesgarri bat

Eskaizten da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea
- Kontuan hartuko da:**
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Goerri bertan edo inguruan bizitzea.
- Goerri inguruak ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali ekainaren 15 baina lehen, gizabalabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA
Ez ahaztu erreferentzia zehatza

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Odola emateko aukera izango da osasun etxean, 19:00etatik aurrera.
Ibarra. Ibarra kirol elkarteak (IKE) urteko Batzar Orokorra izango du 21:00etan.
Tolosa. *Ahots bidaztiak* poesia errezitaldia izango da Leidor aretoan 22:00etan.
Tolosa. Sakramentinoen mendeurrenako ekitaldien barruan, Anthony McSweeney-ren hitzaldiak izango da eukaristiari buruz Kultur Etxean 20:00etan. Otoitzaldia 18:00etan.
Tolosa. Urduña-Angulo mendatea (Araba) irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 6. 943 65 27 89).
Tolosa. San Joan jaien barruan hilaren 23an egingo den Koadriren Egunerako txartelak salgai daude 20 eurotan Orbela tabernan, ostiraletan 19:00etatik 21:30era eta larunbatetan 11:30etik 14:00etara.
Tolosa. Kultur Etxean, 19:30ean, Torturatuena bigarren batzarra, eskualdeko plangintza antolatzeko.

JAIK

Ibarra. Gazte Festak. Egitaraua: 19:30ean txupinazoa; ondoren trikitipotea plazatik; 21:00etan barrikotea Gaztetxean; 23:00etan kontzertuak plazan Etsaia eta Des-



Sanjoanetako txistulari alarde berezia, etzi

TOLOSA ▶ Sanjoanetako jaien egitarauaren hari-
 a, ekitaldi ugari antolatu dituzte herrian. Kultur-
 rak ere, urtero legez, zati garrantzitsua hartzen
 du; Udal Txistulari Bandak herriko kultura susta-
 tzeke makina bat ekitaldi egin ditue —argazkian,
 iaz udan aurkezturiko *Tolosako musika* CDA—
 eta, beraz, izango du bere tarte. Hala, sanjoane-
 tako txistulari alarde berezia izango da etzi,
 20.00etan Berdura plazan. Ifaki Letamendiaren
 zuzendaritzapean 11 abesti interpretatuko dituz-
 te, metalezko boskoteaz. Tolosako Orfeoiaz, per-
 kusioaz, dantzarietz eta abeslarietz lagunduta,
 besteak beste. Aurkezle lanetan, berriz, Kike
 Amonarritz tolosarra ariko da. **E. EZEIZA**

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Naia Gabirondo Gorostidi
 (Gaztelu). Gaur 6 urte. Muxu
 handi bat familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauek batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

kontrol; tarteen ekitaldia.
Tolosa. San Joan jaiak: 17:00etan Haur liburutegiko udako festa; jolasak eta kaleko liburutegia; ondoren Txokolatada; 18:00etan Musika eskolako haurren jaialdia; 20:00etan udal batzar aretoa Juan Garmendia Larrañagaren *Serorak eta sakristuak* liburuaren aurkezpena.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Gaurtik uztailaren 7ra bitarte, Aranburu Jauregian, Kultur Etxeko arte plastikoaren lantegietako ikasleen lanen erakusketa.


GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leiza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Azpiroz, L. Amaro auzoa, 9. 943 675118.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Asteko onena*.
 21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.



17 EKAINAK JUNIO **ZEZENKETA GRANDIOSA** **6** ARABATZARREN TARRA
CORRIDA DE TOROS
 B. JOSE LUIS MARCA RODRIGO
JESUS JANEIRO DE UBRIQUE
 MANUEL DIAZ
"EL CORDOBES"
 FRANCISCO RIVERA ORDOÑEZ
24 EKAINAK JUNIO **ZEZEN-ERREKORTARIEN 3. LEHIAKETA** **7:30** ARABATZARREN TARRA
 GURU EGUNERAKO ESPEZIALISTA NOBENBEREIN
III CONCURSO DE RECORTADORES CON TOROS
 CON LA PARTICIPACION DE LOS MEJORES ESPECIALISTAS DEL MOMENTO
 "CASA PRUDENCIO"

ekainak 15
Ibarra
 Gazte Festak
 19:30 TROPICAL
 ONDORRE TRINGI-PETROA
 21:00 BARRIKOTEA GAZTETxean
 23:00 KONTZERTUAK PLAZAN
TSUK
 DES-KONTEGI
 TRIPTON BILBARRA